



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko martxoaren 14a

26 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea aldatzekoa. Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).
- Foru Lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsitako irizpena (5. or.).
- Foru Lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsitako irizpena (8. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea aldatzekoa

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori, 2001eko irailaren 3ko 87. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, zuzenketa hauek defendatzen ahalko dira:

– 10. zenbakikoa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– 1, 3 eta 8. zenbakikoak, Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

Zuzenketa horiek 2002ko otsailaren 22ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Irizpena

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea eta Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 19/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legeko 6. artikulua bitartez testu berria ezarri zaio Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuko hamabosgarren xedapen gehigarriari –estatutu horren testu bateratua abuztuaren 30eko 251/1993 legegintzako foru dekretuaren bitartez onetsi zen–, eta Nafarroako administrazio publikoen menpeko Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuak osatzen dituzten funtzionarioentzat lanpostuz igotzeko berariazko sistema bat taxutu da.

Hain zuzen ere, maiatzaren 24ko 10/2001 foru legeak indarra hartu zuenetik, Nafarroako Administrazio Publikoetako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko langileentzat honako lanbide-kategoria hauek ezarri dira: suhiltzailea (C maila), suhiltzaile-kabua (C maila), suhiltzaile sarjentua (B maila), suhiltzaile-ofizialordea (B maila) eta suhiltzaile-ofiziala (A maila).

Lanbide-karrera horren oinarri dira, batetik, maila beraren barruan kategoriaz igotzeko lehiaketa-prozedurak, eta, bestetik, goragoko mailara igotzeko oposizio-lehiaketa, titulazioa daukatenentzat nahiz halakorik ez daukatenentzat. Horrela, ofizialordeen postu hutsak betetzeko Nafarroako edo-

zein administrazio publikotako suhiltzaile-sarjentuen artean kategoriaz igotzeko lehiaketa eginen da.

Alabaina, maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legeko IV. kapituluak beste kolektibo batzuetarako ezartzen duenez bestela, foru lege horrek indarra hartu zuenean suhiltzaile-sarjentu lanpostuetan jadanik ziharduten Nafarroako administrazioetako zerbitzuko langileak ez dira birsailkatuak izan Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuak ezarritako B mailan, eta, ondorioz, C mailakoak izaten segitzen dute. Hori dela-eta, aipaturiko foru legeak indarra hartu ondoren sarjentu lanpostura igotzen diren kabuek beste inork ezin izanen du parte hartu ofizialorde kategoriara igotzeko lehiaketan.

Beraz, maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legeari buruz Parlamentuan egin zen eztabaidan legegileak adierazi zuen borondatearen aurka, foru lege honek indarra hartu zuenean suhiltzaile-sarjentu zirenak, B mailarako birsailkapenetik kanpo utziak izateaz gain (gogoan izan zein izan den jokabidea polizia-sarjentuekin), taxuturiko igoera-sisteman parte hartu ezinik geratuko dira, zeren eta, ofizialorde-lanpostu hutsak betetzeko kategoria-igoera lehiaketa barne-igoera izanik, C mailan dauden sarjentuek inoiz ezin izanen baitute parte hartu: Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuko 18. artikulua aginduz, funtzionarioak maila beraren barnean bakarrik igo ahalko dira kategoriaz.

Halaber, kategoria berriak mailaz maila arautzen direnez, ofizialorde lanpostuak B mailan sartzen dira, eta A mailan suhiltzaile-ofizial lanpostuak, kontuan izan gabe gaur egungo ofizialak, zeinak B mailan baitaude, zein egoeratan dauden.

Hori guztia dela-eta, maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea onestean izan den borondatearekin koherentzia izatearren, premiazkoa da Nafarroako administrazio publikoen menpeko Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuetako langileentzat taxuturiko lanbide-karrerari birsailkapen berrien ondorioz gertatzen diren egoera iragankorrak egokitzea, suhiltzaileekin eta suhiltzaile-kabuekin egin den bezalaxe.

Bestalde, euren lanpostuko ardurak zein diren ikusita, bidezko da agintarientzako gidariak C mailan sartzea.

Eta Nafarroako polizia kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legeko 12. artikulua aldatzen duen uztailaren 5eko 19/2001 Foru Legeak nahi gabe eragindako ondorio batzuk zuzentzearren, aipatu artikulua beste modu batera idaztea planteatzen da. Helburua da, segurtasun juridiko

handiagoa lortzeko, albienteen polizia-eginkizunak zehaztea eta horiei betetzen uztea bestelako administrazio eginkizunak, uztailaren 5eko 19/2001 Foru Legea onetsi aitzin betetzen zituztenak hain zuzen ere.

Artikulu bakarra. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legeko ondoko artikulua jarraian adierazten den bezala aldatuko dira:

Bat. 6. artikuluko 7. idatz-zatiari bigarren lerrokada bat gehitzea. Lerrokada horrek honako testu hau izanen du:

“Hala ere, foru lege honek indarra hartzean Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuan B mailako ofizial gisa izendatuta dauden langileek kategoria horri eutsiko diote, iraungitzeko bidean dagoen egoera pertsonal gisa. Funtzionario horiek A mailako suhiltzaile-ofizial lanpostuak betetzeko deituriko oposizio-lehiaketetan parte hartu ahalko dute, ofizialordeekin batera, goi mailako titulazioa izatearen baldintza bete behar izan gabe, baldin eta Nafarroako edozein administrazio publikotan ofizial gisa egiaz zerbitzuak ematen gutxienez bost urte eman dituztela frogatzen badute.”

Bi. 18. artikuluari idatz-zati berri bat, bigarrena, gehitzea. Testu hau izanen du:

“2. Foru lege honek indarra hartzean Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuan suhiltzaile-sarjentu lanpostuan diharduten langileak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuan ezarritako B mailari atxikiko zaizkio.”

Idatz-zati berria. IV. Kapituluari artikulua berri bat gehitzea. Hona testua:

“Foru lege honek indarra hartzean Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren nahiz haren menpeko erakunde autonomoen zerbitzuan agintarientzako gidari nahiz korporazioko gidari lanpostuan lan kontratu finkoarekin diharduten langileak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuan ezarritako C mailari atxikiko zaizkio. Sailkapen berri horrek berekin ekarriko du egun jasotzen dituzten lansari osagarrietan bidezko den xurgapena, eta ez du ekarriko langile horiek egun jasotzen dituzten lansari pertsonal oinarritzko eta osagarrietan zenbateko osoa ezer igotzea, graduari dagozkionak salbu.”

Idatz-zati berria. Uztailaren 5eko 19/2001 Foru Legeak Nafarroako polizia kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legeko 12. artikuluari emandako testua aldatzea. Hona testu berria:

12. artikulua. 1. Udaltzaingorik ez duten toki entitateek guardia, zaindari, agente, albiente eta gisakoak izan ahalko dituzte, artikulua honetako 3. idatz-zatian ezarritako eginkizunak betetzeko. Langile horiei "albiente" izen generikoa emanen zaie Nafarroako Foru Komunitatean.

2. Albienteak, armak eraman ala ez, agintearen agentetzat hartuko dira euren eginkizunak betetzean, eta agente izate hori agiri bidez kreditatu beharko dute.

3. Albienteek, berezko dituzten eginkizunez gain, ondokoak bete ahalko dituzte:

a) Udalaren zerbitzu, instalazio eta egoitzak jagon eta zaintzea.

b) Hiriguneko trafikoa antolatzea, zirkulazio arauekin bat.

c) Babes zibileko eta herritarrei laguntza emateko zereginetan parte hartzea, legeek xedatuarekin bat.

d) Erregelamendu, ordenantza, bando, ebazpen eta udalaren gainontzeko xedapen eta egintzak betetzen direla zaintzea.

4. Albienteak foru lege honetan espresuki aplikatzekoa zaienari eta Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutua erregulatzeko erabiltzen diren arauetan xedatuari lotuko zaizkie. Hautatu eta sartzeko prozeduran Nafarroako Segurtasun Eskolak emandako prestakuntza ikastaro berariazkoa gainditu beharko da, bestela ezin izanen baitute izendapena jaso.

5. Udaltzaingoa eratzeko beharrezkoak diren baldintzak bete arren, euren plantillan zaindari, agente, albiente, gauzain edo gisako lanpostuak dituzten toki entitateek udaltzain izateko hautaprobak egin ahalko dituzte, behin bakarrik, funtzionario horiei mugaturik, baldin eta ondoko baldintzak betetzen badituzte:

a) Deialdia egin aitzin toki entitateak Udaltzaingoa sortzea.

b) 30.2 artikuluan aipatzen den prestakuntza ikastaroa egin beharra ezarriko du deialdiak, ondoko kasuetan: izangaiek ikastaroa egin ez badute eta ikastaroa gainditu izan arren –zein lanpostutatik igo diren, harexetan sartzeko– ikastaroa egin zenetik hiru urte baino gehiago igaro badira.

Deialdi horren ondorioz ezinezkoa bada Udaltzaingoa sortzeko erregelamenduak eskatzen duen behar adina udaltzain izendatzea, toki entitateak urtebeteko epean egin beharko du, gehienez ere, hutsik geratu diren lanpostuak betetzeko deialdia.

Xedapen iragankor berria

"Nafarroako Gobernuak, urtebeteko epean gehienez ere, foru lege honek indarra hartzen duenean B mailako suhiltzaile-ofizial izendapena eduki eta egiaz emandako zerbitzuetan bost urteko antzintasuna duten Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioentzako murriztutako oposizioa deituko du. Oposizio hori –NAPIk emandako prestakuntza ikastaroa sartuko da– gaindituz gero, funtzionario horiek A mailako suhiltzaile-ofizial gisa sailkatuta geratuko dira, eta B mailan zituzten lanpostuak kenduko dira. Oposizioa gainditzen ez badute, 6. artikuluan arautzen den egoeran geldituko dira."

Azken xedapenak

Lehena.- Nafarroako Gobernua baimentzen da foru lege hau garatu eta betetzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena.- Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

Hirugarrena.- Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Foru Lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko foru lege proposamena aurkeztu zuen: "Foru Lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa".

Hezkuntza eta Kultura Batzordeak aipatu foru lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori, 2001eko irailaren 3ko 87. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, ez da boto partikularrik egin.

Iruñean, 2002ko martxoaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Irizpena

Foru Lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak jartzeari buruzkoa eta Goi Mailako Musika Kontserbatorioa sortzekoa

ZIOEN AZALPENA

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorre-rako urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak (LOGSE) dantza, arte dramatiko, arte plastiko eta diseinuko ikasketak sakontasunez arautzen ditu hezkuntza-sistemaren erreformaren barrenean lehen aldiz. Gizartean horiekiko dagoen interes gero eta handiagoari (horien eskaerak izan duen gorakada guztiz nabarmena da interes horren agergarri argiena) erantzuten dio. Zenbait arrazoi direla-eta, komenigarria da horiek sistemaren egitura orokorrek lotura izatea eta, aldi berean, behar den malgutasun eta berariazkotasunaz antola daitezela, euren berezitasunei aurre egin eta maila profesional ezberdinak eskaini ahal izateko, baita unibertsitate-titulazioen baliokideak direnak ere (lizentziatu tituluaren baliokide izanen dira musikaren eta arte eszenikoen arloei dagokienez, non dantza eta arte dramatikoa sarturik baitaude).

LOGSEko 38. artikulua ezartzen duenez, "ikasketa artistikoen helburua izanen da ikasleei kalitatezko prestakuntza artistikoa ematea eta etorkizunean musika, dantza, arte dramatiko, arte

plastiko eta diseinuaren esparruetako profesional izanen direnen trebakuntza bermatzea.

Horrela, aipaturiko legeko 39. artikulua hauxe esaten du:

1. Musika- eta dantza-ikasketak hiru mailatan antolatuta egonen dira:

a) Oinarrizko maila, zeinak lau urte iraunen baitu.

b) Erdiko maila, zeina hiru ziklotan zatituta egonen baita. Ziklo horietako bakoitzak bi ikasturte iraunen du.

c) Goiko maila, zeina ziklo bakarrez osatuta egonen baita. Ziklo horren iraupena ikasketa horien ezaugarrien arabera zehaztuko da.

2. Salbuespen gisa, ikasleak ikasturte bat baino gehiagotan matrikulatu ahalko dira, irakasleek horri buruzko aholkua eman ondoren eta haiek daukaten ikasteko gaitasunak horretarako aukera ematen duenean.

3. Araubide bereziko musika- eta dantza-ikasketetan irakasle aritzeko beharrezkoa izanen da lizentziatu, ingeniari edo arkitekto titulua edo irakaskuntza-eginkizunetarako baliokide den titulazio bat edukitzea eta zehaztuko diren pedagogia-gaiei buruzko ikasketak egin izana.

4. Ikasketa horietako curriculumak ezartzeko, lege honetako 4. artikulua xedaturikoari jarraituko zaio.

5. Aurreko idatz-zatietan xedaturikotik at, musika- edo dantza-ikasketak egin ahalko dira berariazko ikastetxeetan, inolako adin-mugarik gabe. Ikasketa horien bidez ezin izanen da inola ere lortu balio akademiko eta profesionala duen titulurik, eta haien antolamendua eta egitura aipaturiko idatz-zatietan ezarritakoaz bestelakoa izanen da. Ikastetxe horiek erregelamendu bidez arautuko dituzte hezkuntza administrazioek.

Bestalde, LOGSEko 40. artikulua hauxe ezartzen du:

1. Musika- eta dantza-ikasketen oinarrizko mailari dagokionez, Hezkuntza Administrazioek sarrera-irizpideak ezarri ahalko dituzte, eta, horretarako, kontuan hartuko dute, besteak beste, ikasketa horietarako adinik egokiena zein den.

2. Musika- eta dantza-ikasketen erdiko mailara iritsi ahal izateko berariazko sarrera-proba bat gainditu beharko da. Bestalde, ikasturte bakoitzera aurrekoak gainditu gabe iritsi ahal izanen da baldin eta, proba baten bitartez, interesdunak erakusten badu kasuan kasuko ikasketak ongi aprobetxatuz egiteko behar diren ezagutzak dauzkala.

3. Musika- eta dantza-ikasketen goiko mailara iritsi ahalko da baldin eta honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Batxilergo-titulua edukitzea.

b) Erdiko mailako hirugarren zikloko ikasketak gainditzea.

c) Gobernuak ezartzen duen berariazko sarrera-proba gainditzea. Horretan, interesdunak kasuan kasuko ikasketak ongi aprobetxatuz egiteko beharrezkoak diren ezagutzak eta lanbide-trebetasunak dituela erakutsi beharko du.

4. Aurreko idatz-zatian xedatua gorabehera, ezarritako baldintza akademikoak bete gabe ikasketak horien goiko mailara iritea posible izanen da baldin eta interesdunak erakusten badu bai erdiko mailari dagozkion ezagutzak eta gaitasunak bai kasuan kasuko ikasketak ongi aprobetxatuz egiteko beharrezkoak diren berariazko trebetasunak dauzkala.

Azkenik, 42. artikulua haxe ezartzen du:

1. Oinarrizko maila amaitzean, horren ziurtagiria luzatuko da.

2. Musika edo dantzako erdiko mailaren hirugarren zikloa gainditzeak kasuan kasuko ikasketari dagokion lanbide-titulua lortzeko eskubidea emanen du.

3. Ikasketak horien goiko maila gainditu dutenek eskubidea izanen dute kasuan kasuko espezialitateko goi mailako titulua lortzeko. Titulu hori unibertsitate-lizentziatuaren baliokidea izanen da, ondorio guztietarako.

4. Hezkuntza administrazioek unibertsitateekin hitzarmenak sina daitezen sustatuko dute, aurreko idatz-zatiak aipatzen dituen goi mailako tituludunentzat hirugarren zikloko ikasketak antolatzea errazteko.

Hezkuntza sistemaren antolamendu berria aplikatzeko egutegia ezartzen duen ekainaren 14ko 986/1991 Errege Dekretuko 28. artikulua xedatzen duenez –errege dekretu hori apirilaren 12ko 535/1993, uztailaren 1eko 1487/1994, otsailaren 16ko 173/1998, irailaren 19ko 1468/1997 eta ekainaren 25eko 1112/1999 errege dekretuen bidez aldatu zen–, “2000-2001 ikasturtetik aitzina

hasiko dira hezkuntza administrazioak oro har ezartzen egoki jotzen dituzten antolamendu berriko goi mailako ikasketak.

Apirilaren 15eko 389/1992 Errege Dekretuak irakaskuntza artistikoetako ikastetxeetan irakasle- eta ikasle-kopuruen artean egon behar diren proportzioak eta espazio eta instalazioei dagokienez bete behar diren gutxienekoak ezartzen ditu.

16. artikuluan, berriz, goi mailako musika eskolek gutxienez ere eman beharreko espezialitateak ezartzen dira.

Azkenik, Goi mailako musika ikasketen curriculumeko oinarrizko puntuak eta ikasketak horietan sartzeko hauta-probak arautzen dituen apirilaren 21eko 617/1995 Errege Dekretuak ezartzen duenez, ikasketak horietako espezialitateak eta hezkuntza administrazioen curriculumak garatzeko oinarriak ezartzen ditu.

Ikusita kasuko argumentu eta lege esparruak, bidezko da azpiegitura egokiak garatzen lagunduko duten arauak ematea.

Irakaskuntza artistikoetako ikastetxeek bete behar dituzten gutxieneko baldintzak ezartzen dituen apirilaren 15eko 389/1992 Errege Dekretua sakonki aztertuz ondorioztatzen da lanbide kontserbatorioek (erdiko maila irakasten dute) eta goi mailakoek egiazki ikastetxe ezberdinak beharko dutela izan.

Gaur egun, Nafarroak iraungitzean dagoen 1966ko ikasketak-planaren arabera goiko maila dauka musika-ikasketetan. 2000-2001 ikasturtean erdiko mailan matrikulaturiko 341 ikasle izan dira Nafarroan. Goiko mailarako ikasle batzuk gradu hori ez daukaten probintzia mugakideetakoak dira: Errioxa, Soria, Huescakoak. Ez deritzogu ez logikoa ezta komenigarria ere Nafarroak maila hori galtzeari; izan ere, maila hori musika-ikasketen gailurra da, eta ondorio guztietarako unibertsitate-titulazioaren baliokidea den titulua ematen dute.

1942 eta 1966ko musika-planen bitartez egin bezala, Nafarroak tradizioari eutsi eta maila goreneko musika-ikasketak eskaintzen segitu beharko du; hori, gainera, bultzatzaile eta akuilu izanen da lanbide-kontserbatorioetan edo musika-eskoletan eskaintzen diren behe-mailako musika-hezkuntzako ikasketetarako eta Nafarroako bizitza kulturalerako.

Ikasleek euren erkidegoan bertan amaitu ahal dituzte musika-ikasketak, eta, horrela, goi mailako musika-titulua lortu ahalko dute, unibertsitate-lizentziatuaren mailakoa. Horrez gain, hirugarren

zikloko ikasketak ere egin ahalko dituzte Unibertsitatean.

1. artikulua. Nafarroako Gobernuak Musikako goiko maila ezarriko du Nafarroan 2002-2003 ikasturtean, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Legeak xedatuari jarraikiz.

Artikulu berria. Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa sortu da, Nafarroako Gobernuaren mende, "Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa" izenarekin.

2. artikulua. Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioak helburu nagusi du pedagogia, konposizio, interpretazio eta ikerkuntza arloetako musikari profesional adituak prestatzea, musika klasikoaren, usadiozkoaren eta modernoaren alorretan euren lanbidea garatuko dutenak eta prestakuntza teknologiko, teoriko eta humanistiko handikoak.

Xedapen gehigarri berria

Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren bitartez, Musikako Goi Mailako musika ikasketen curriculumaz ezarri eta haietan sartzeko probak arautuko ditu, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoko 4. artikuluan xedatuarekin bat.

Xedapen gehigarri berri bis

Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren bitartez, kontserbatorioaren erregelamendu organikoa garatuko du –goi mailako ikasketa izaerari egokitua eta berezitasunei aurre egiteko beharrezkoak diren malgutasun eta espezifikotasuna ahalbidetuko duena–, ikastetxe horri antolamendu-esparru bat ematearren.

Xedapen gehigarri berri ter

Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren bitartez, musika eskoletan musika ikasketa arautuak egiteko probak prestatzeko programak ezartzen laguntzeko sistema

berariazkoa ezarriko du, eta ezarpen-maila baxuko orkestra espezialitateei laguntzeko politikak sustatuko ditu.

Xedapen gehigarri berri quater

Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren bitartez, lankidetzaz hitzarmenak sustatuko ditu "Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren" eta talde-jarduerekin lotutako goi mailako musika ikasketei buruzko programak garatzeko gaitasun artistiko eta antolamenduzko nahiko duten tokiko musika-erakundearen artean.

Xedapen iragankor berria

Nafarroako Gobernuak 2002an hasiko ditu Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren eraikina eta eskola-eremuko ekipamendu, egokimendu eta azpiegitura obrak hasteko trami-teak.

Xedapen iragankor berri bis

Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioak "Pablo Sarasate" Kontserbatorioarekin erdibanatu ahal izanen du horren egoitza, bi kontserbatorioen egoitza berriak eraikitzen diren bitartean.

Xedapen iragankor berri ter

Zuzendaritza talde berak zuzendu ahal izanen ditu Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa eta "Pablo Sarasate" Kontserbatorioa egoitza berean dauden bitartean.

Azken xedapenak

Azken xedapen berria

Nafarroako Gobernuari esku ematen zaio foru lege hau garatu eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Foru Lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko foru lege proposamena aurkeztu zuen: "Foru Lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa".

Hezkuntza eta Kultura Batzordeak aipatu foru lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori, 2001eko irailaren 3ko 87. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, ez da boto partikularrik egin.

Iruñean, 2002ko martxoaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Irizpena

TITULUA (BAZTERTUA)

ZIOEN AZALPENA (BAZTERTUA).

1. artikulua. (BAZTERTUA).

2. artikulua. (BAZTERTUA).

Azken xedapenak

Lehena. (BAZTERTUA).

Bigarrena. (BAZTERTUA).

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat..... 39,07 euro</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 0,96 »</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 1,14 »</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
---	---